



Asier Nieblaren senideen lekukotza

Elena ama, Juanjo anaia eta Joana arrebarekin elkartu da Aiurri, Asier Niebla hil zela 11 hilabete bete direnean: "Hilketa bat izan zen, neurriko zigorra eskatzen dugu" / 2-3



LEITZARAN BAILARAN LASTERKA

Plazaolako natur bideko maratoiaren edizio berria, igande honetan. Hiru lasterketa ezberdin aukeran, eta guztien helmuga Andoaingo udaletxe parean / 10

GURASO ESKOLA

0-16 urte bitarteko seme-alaben gurasoentzako



Adintarteko taldeak eta ordutegiak:
urritik maiatzara saio bat hilean

0-6	astelehena	14:30 - 16:00
7-11	asteartea	17:30 - 19:30
12-16	asteazkena	18:00 - 20:00

Matrikula: banakakoa 25 € - bikoteak 40 €

Ludoteka zerbitzua: 5-11 urte bitarteko haurrentzat, betiere, izen-emate orrian beharria adieraziz

Izena emateko datak eta lekua: irailaren 9tik urriaren 4ra



- Urrietako ikastetxeak (seme-alabek Urrietan ikasten badute)
- Bertan - Herritarren Udal Arreta Zerbitzua (udaletxea)
- Gazte Informazio Puntua (Idiazabal 13)
- Urrietako Udalaren webgunean online



Joana Niebla, Juanjo Niebla eta Elena Martinez Asier Nieblaren anai-arrebak eta ama dira. Urriaren 11n haren heriotzaren lehen urteurrena beteko da. AIURRI

“Hilketa bat izan zen, neurriko zigorra eskatzen dugu”

ELENA, JUANJO ETA JOANA ASIER NIEBLAREN ETXEKOAK

Abuztuak 12, urriak 12... inoiz ahaztuko ez dituzten datak dira Niebla-Martinez familiarentzat. Familiak justizia eskatzen du, epaiketa noiz hasiko zain diren bitartean

Andoni Urbistondo URNIETA

Abuztuaren 12an, Asier Niebla gaztea Donostian zegoen, parrandan, neska batekin hitz egiten. Mutil batek sekulako kolpea eman zion buruan, eta

bi hilabete geroago hil egin zen. Familiak justizia eskatzen du, zigorrak handiena, erasotzailearentzat, eta ekintza hura genero indarkeria gisa hartzea, erasoak jelsiak eragin baitzuen.

Epaiketaren zain dira, etapa bat itxi eta bestea hasteko. 2020an izan daiteke. Aiurriri eskaintako elkarrizketan, erakunde eta urnietarren babes handia eskertu nahi izan dute.

nahi dugu familia bezala? Ba anaia kolpatu zuen pertsonak dagokion zigorra ordaintzea”. Zorretan sentitzen dira Asierrrekin, eta “gauzak ondo egin eta epaiketa justu bat lortzeko borrokatzea baino ez zaigu geratzen, erasotzaileari ahalik eta zigor handiena jar diezaioten. Anaiak ez zuen batere aukerarik izan defendatzeko, ez zuen ikusi zer zetorkion, eta haren ordezkari gara orain”. Joana arrea ere argi mintzo da: “Garbi daukagu. Erailketa bat izan zen, alde aurretik prestatua edo pentsatua. Erasotzaileak bazekien zer egin, non jo, min handiena egiteko”. Juanjok arrasto gehiago: “Ezin dugu gauza askorik esan, badaezpada, baina erasotzailea Asier zaintzen ari zela susmoa dugu, eta hortik, eraso aurretik prestatu zuela pentsatzea. Lekukoak ere badaude, haiei euren prestutasuna eskertu behar diegu”.

Ez daukate informazio zehatzik epaiketari buruz: “Abokatuak esan digunez, kasua ez da itxi oraindik, eta ez daukagu data-ri buruz berririk”. Aurten ez dela izango ziur dira, agian hurrengo urtean izan liteke. Zinpeko epaimahaia izango dela badakite, behintzat. Erasotzailea kartzelan dago, baino bi urte betetzean behin-behineko askatasuna lor dezake. “Guretzat kolpe gogorra izango litzateke”, dio Elena amak. Joana arrebak eskaera bat egiten du: “Justiziari gure tokian jartzeko eskatuko nioke. Dolua pasatzen ari gara Asier erail zutenetik, eta pasako dugu, gure bizitza osoan, baina epaiketa egin eta zigorra jakin ostean, bera gabe bizitzen ikasten hasteko aukera izango dugu. Ordura arte ez”. Bere egoera pertsonala deskribatu du, samurra ez. “Pastillak hartu behar ditut lo egiteko, amesgaizto latzak ditut, esnatu eta anaiaren hilketa amets bat izan zela pentsatuz, baina esnatu eta gertatu egin zela jabetzen zara. Egunero bueltak eman eta eman ari gara, epaiketak eta epaiak arinduko al digute, apur bat, gure mina. Etapa bat itxi, beste bat hasteko. Zauria ez da itxiko, inoiz”.

Juanjo anaiak pentsatu ere ez du egin nahi erasotzailea libre irtetea bi urteko espetxe aldia pasa ondoren: “Pentsa kalean ikusten dugula... Ezin

Samina sumatzen da Juanjo Nieblak Lizardi kalean daukan lokalean. Asier Nieblaren anaia da, 11 hilabete atzera hil zen Urnietako gaztea. Osoago ikusten zaie Juanjo eta Joana anai-arrebei. Elena Martinez amak lanak ditu bi esaldi segidan botatzeko, malkotan hasi gabe. Oso presente du, oraindik, semearen heriotza. “Gaizki gaude, oso gogorra izaten ari da. Prozesua ez da itxi. Justizia nahi dugu. Bizkarretik egin zioten eraso, defendatzeko batere aukerarik gabe. Ez zen liskarrik egon, ez ezer, ukabilkada bat eman zioten eta kito”. Eskatu gabe, semea nolakoa zen azaltzen hasi da ama. “Pertsona ona zen, maitekorra, ilobek asko maite zuten. Zer esatea nahi duzu ama batek? Niretzat mutil onena zen. Erail zutenean lagun eta familia guztia azkar batean etorri ziren, batzuk Txinatik ere bai. Zerbaitegatik izango da. Asko maite zuten”.

Momentuko egoera zein den azaldu du Juanjo anaiak: “Zauria ixtea ezinezkoa izango da, ez baita inoiz itxiko. Anaia ez da itzuliko, eta justizia bete-betea izatea ezinezkoa da. Zer



Elena Martínez, Asier Nieblaren ama. AIURRI



Juanjo Niebla. AIURRI



Joana Niebla. AIURRI

duzu ezer egin, erruduna bilakatzeko zarelako, baina gizakiak gara... Gertaerak garbiak dira, gure ustez, eta horregatik dago eta egon behar du erasotzaileak kartzelan". Epaiketa kontuez gain, mediatikoki euren kasua zabaltzeko ahalegina ere egiten ari dira: "Oihartzuna eman nahi diogu Asierren kasuari, zeren iaz nire anaia izan zen, baina halako gauzak edozeini gerta dakizkioke. Nik semea eta alaba ditut, eta beldurtuta nago, zer gerta dakiekeen parrandara ateratzen direnean". Eztabaidak denek eduki ditugula dio anaiak, "baina puntu horretaraino, jelsiagatik erailteza, eta ihes egitea...".

Genero indarkeria

Niebla-Martinez sendia Asierren erailketa genero indarkeria izan zela frogatzen saiatuko da, egun, legeak, gizon batek beste bati egindako eraso genero indarkeria denik jasotzen ez badu ere: "Erailketa eskatzen dugu, eta ondoren, genero indarkeria astungarri moduan, Asier erasotzailearen neskalaguna izan zenarekin hitz egiten ari zelako. Beste pertsona batekin hitz

egiten aritu izan balitz, ez zuen erasoko, eta horrek, guretzat, genero indarkeria frogatzen du. Asierrek ez zuen erasotzailea ezagutzen, baina erasotzaileak Asier, aldiz, bai", dio Joanak.

Asier genero indarkeriaren biktima izan zela lortzeko jardunean jakitun dira eurek bakarrik ezin dutela lan hori egin, "burokrazia handia eskatzen duelako. Ari gara galdetzen, han eta hemen, nola egin daitekeen. Familiak Urnietako Udala eta Mikel Pagola alkatearen laguntza ere eskertu nahi du, baita herritarrena ere: "Oso babestuak sentitu gara".

Halako gertaerak zergatik gertatzen ote diren galdetuta, hausnarketa hau egin dute. Juanjok, aurrena: "Heziketa kontua izango da, noski, baina ez dakigu erasotzaileak zein heziketa jaso duen, jaso badu. Eta heziketa faltagatik ere ezin duzu erasotzaileak jokatu duen bezala jokatu. Gainera ihes egin zuen, eta eraso egin zuenik ukatu. Denok hartu dugu nozbait koparen bat parrandan, eta ez gaituzte modu horretan kolpatu. Asier anaiari bai. Zer-

gatik gertatu da? Gure anaiak ordaindu du, baina beste edozein izan zitekeen, eraso egin zuenak bere neska lagunarekin hitz egiten ari zen edonor kolpatu eta mina egiteko borondatea zeukalako". Joana arrebak segida: "Bi alaba ditut, anaiak semea eta alaba, eta guraso bezala, ulergaitza egiten zait jendartean halako jarrerak ikustea. Pertsona hori biolentoa da, arriskutsua. Nire familian ez dut inor halakorik egin dezakeenik sumatzen. Gaizki ari gara, baino ez dakit zergatik den".

Epairekin zalantza

Egun indarrean dauden legeak ikusita, gerta liteke espero dutena baina zigor apalagoa etortzea, "homizidiotzat hartzea, adibidez, eta ez erailketa bezala. Familia gisa, gure zeregina da hiltzailea borroka-arteetan iaioa zela frogatzea. Asier zainduta ote zeukan frogatzea, zergatik kolpatu zuen, eta zergatik zeukan hainbesteko mina egiteko intentzioa", dio anaiak. Legea epe laburrean aldatzea zaila izanen dela badaki: "Zigorra gehienez 15 urtekoa izan

daitekeela susmatzen dugu, eta horrek 10-12 urte barru kalean egon daitekeela esan nahi du. Gu betirako zigorrak bakarrik aseko gaitu, baina hori ezinezkoa da, egungo legedia aintzat hartuz. Zigorra bete eta kalera irteten bada, jendartearekin zorra beteta irtengo da, baina gurekin daukan zorra ordainezina da".

Diana Quer, erail zuten emakumearen aitak esan zuenarekin bat egiten du arrebak. "Guri, familiari, bizitza osorako kaltea, mina eragin digu hiltzaileak, eta berarentzat tamainako zigorra eskatzen dugu: bizitza osorako zigorra. Guk Asier gabe bizitzen ikasi behar dugu, nire alabei zer esan pentsatu eguneroko, osaba non dagoen galdetzen dutenean, edota hazten direnean osabari zer gertatu zitzaion azaltzen diegunean...".

Epaiketari Asier senidea hil zuen pertsona ikusiko dutela badakite. Ze erreakzio espero dute? Joanak ez du pentsatu ere egin nahi zer gerta daitekeen hiltzailearekin parez pare aurkitzen bada. "Gaur ez daukat tenplerik erasotzailea ikusteko. Amorratuta nago, nahiago dut anaia hil zuen mutila ez ikustea. Niretzat ez du ezer merezi, basati bat da, eta ezin zaio pertsona deitu. Bizitza hautsi digu. Epaiketara joango naiz, dena den". Elena amak, aldiz, zintzo esaten du bere semearen hiltzailearekin solasaldi luzea

Erakusketa eta lasterketa

Arte erakusketa bat martxan dago, 2018an Espainian erail zituzten 47 emakumeren kasuekin. Ateetan egindako margolanak dira. Niebla ez da biktima ofiziala, aitortua, baina 47 ateei urnietarrari eskainitakoa gehitu zaio. Donostiako Udalaren eskariz izan da. Une honetan erakusketa Vigon dago, baina berriro ekarriko dute Donostiara.

Lasterketa urrian

Asierren lagun taldeak kirol hitzordu bikoitza antolatu du urriaren 12rako. 16:00tan hasiko da Asier Nieblaren oroimenezko lasterketa. Dagoeneko Kirolprobak webgunean izena emateko epea zabalik dago. Martxa egiteko 5 euro ordaindu beharko dira, eta korrika proba osatzeko, 8 euro.

eduki nahiko lukeela: "Zergatik egin zuen egin zuena, zer sentitzen duen orain...". 11 hilabete drama lehenbailehen bukatzeko eskatuz agurtu dira hiru senideak.

"GAIZKI GAUDE, OSO GOGORRA IZATEN ARI DA. PROZESUA EZ DA ITXI"

ELENA MARTINEZ, ASIERREN AMA

"ANAIA EZ DA ITZULIKO. JUSTIZIA BETE-BETEA IZATEA EZINEZKOA DA"

JUANJO, ASIERREN ANAIA

"PASTILLAK HARTU BEHAR DITUT LO EGITEKO, AMESGAIZTO LATZAK DITUT"

JOANA, ASIERREN ARREBA

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



Iraila, euskaltegian izena emateko garaia

Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalek aurten ere elkarren eskutik deia egin diete herritarrei, euskara ikasi edo hobetzeko helburuarekin euskaltegietan izena eman dezaten. Joan zen ostiralean Andoaingo Goikoplazan elkartu ziren Buruntzaldeko zortzi euskaltegietako ordezkariekin batera, ikasturterako martxan duten matrikulazio kanpaina

babesteko asmoz. Manuel Larramendi euskaltzale sutsuaren bustoaren bueltan taldeko argazkia atera zuten. Ezaguna da Larramendik euskarari buruz idatzi zuen leloa: "ezina, ekinez egina". Euskaltegi guztietan maila guztietako ikastaroak eskaintzen dira. Euskaltegira bertara joaterik ez duenak ere badu autoikaskuntza sistemaz baliatzeko aukera.

POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: andoain@aiurri.eus | urnieta@aiurri.eus



Aiurri eskuragarri:
Ebeiz ebeiko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketzaileak: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugartemendia. idezkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzailak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnieta).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: ERROITZ KULTUR MUGATZA ALIATUAK: nesteez TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA Urnietako Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO Gipuzkoako Foru Aldundia Hizkuntza Beelintzasmereko Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA: 2017 Bitarn

BABESLEAK: Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



Urtean zehar auzoen arteko liga jokatu duten hainbat kirolari argazkirako bildu ziren finalaren amaieran, Sorabillako frontoian. AIURRI

Lehiaz harago doan ligaxka

Buruntza auzoak irabazi du aurtengo auzoen arteko herri kirolen liga. Santa Krutzen hasi zen lehiaketa, eta Etxeberrietan, Goiburun, Buruntzan eta Sorabillan izan du jarraipena. Lehiaren gaintik, auzoen eta auzotarren arteko adiskidetasuna nagusitu da

Xabier Lasa ANDOAIN

Sokatira eta lokotxa biltzea jarri ziren desafio gisa Sorabillan, eta ikuskizun polita eskaini zuten Buruntza, Goiburu, Etxeberrieta eta Sorabillako kirolariek; Santa Krutz igandeko lehiatik kanpo geratu zen, ezin izan baitzuen osatu taldea. Ikusle ugari bildu zen Andoaingo auzo desberdinetatik bertaratuta, eta sokatirak eragin zuen emoziorik handiena. Izan ere, tiratzaileek etengabe jaso zituzten haien animoak. Azkenean, Sorabillako taldea izan zen punturik gehien jaso zuena, bi probatan.

Liga Santa Krutz jaietan abian jarri zen, eta geroztik Etxeberrieta, Goiburu, Buruntza eta Sorabillatik igaro da. Hainbat proba jokatu dira urtean zehar han hemen, lokotxa biltzea eta sokatiraz gain, sega, ingudea, zaku karrera, toka, karretillan pertsona eramatea, traktoreare-

kin giza proba... Honela geratu da azken sailkapen orokorra:

1. Buruntza (36 puntu).
2. Sorabilla (31 puntu).
3. Goiburu.
4. Santa Krutz (21 puntu).
5. Etxeberrieta (20 puntu).

Mistoak izan dira proba gehienak, eta zigorrak jaso dituzte zenbait pronetan araua bete ez dutenek.

Kirola eta herrigintza uztarturik

Herri kirolak plazaratzearekin batera, herrigintzaren ikuspegia jarri behar da argitan, antolatzaileek azpimarratu nahi izan dutenez. Izan ere, antolatzaileek

HERRIGINTZA JARRI BEHAR DA ARGITAN, NABARMEN INDARTU BAITA AUZOEN ARTEKO LEHIAN

helburu ugari jarri zituzten jomugan, ligaren ekimena iaz abiarazi zutenean; hala nola, geure-geureak diren eta nahiko baztertuak dauden herri kirolak sustatzea, herritarrak herritarrak jaietako ekitaldietan parte hartzea animatzea, auzoen eta auzotarren arteko harremanak estutzea, auzoetako jaiak indartzea... Nahiko argi dago bete egin ari direla jarritako helburuak. Bi liga aurrera eramateak aparteko ahalegina eskatu die antolatzaileei, ez baita erraza kirolariak erakarri eta taldeak osatzea (are gutxiago Andoainen, jai ugari opor garaietan ospatzen baitira).

Orain arteko emaitzak ikusita, antolatzaileek, kirolariek eta ikusleek bat datoz iritziarekin: ekimenak jarraipena eduki beharko luke Andoainen, herri kirolen eta herrigintzaren mesedetan.



Irudian Goiburuko taldea, Aitor Morales, Mirari Ucin eta Ion Beloki. AIURRI



Buruntza taldeak bigarren urtez lortu du ligako txapelketa. AIURRI



Sorabillako jaien antolakuntzan hainbat zereginetan aritu ziren zenbait herritar. AIURRI

Jaiei bikain eutsi diote

Sorabillako jaiak giro apartarekin ospatu dira. Auzoko bizilagunek eta Gazteleku pilota eskolako kideek elkarlanean jardun dute antolakuntzan, eta herritarrek eskertu egin dute ahalegin hori, egitarauko ekitaldi guztietan biziki parte hartuz

Xabier Lasa ANDOAIN

Jai Batzordeak antolaketa lanak uzteko asmoa agertu zuen iaz, urtetan pilotutako nekea zela eta. Jaia solik igandean ospatuko zela adierazi zuen, hasiera batean. Gaztelekuk, ondoren, laguntzeko eskaintza luzatu zion batzordeari eta horrek eragin zuen lehen asmo hori aldaraztea, eta egitaraua bi egunetara luza-

ztea. Gazte jendea lanean gogotsu ikusi da Sorabillako plazan jai aurreko egunetan zein asteburuan zehar, eta horrek itzaropena eragin die Jai Batzordeko kideei. Sorabillako jaien etorkizuna ziurtatuta egon litekeela uste dute. Zaila da azpimarratzen ekitaldi bakar bat egitaraua osatzen zuten guztien artetik. Nolanahi ere, esan daiteke zikiro

jatean iritsi zela unerik hunki-garriena. Maiatzaren 26an hil zen *Puri* Aizpurua oroitu zuten, urtero-urtero hutsik egiten ez zuen pertsona. Antonio Calleja abeslaria eta Aran Mujika biolin jolea oholtzara igo eta *Txoria txori* abestu zuten. Zikiro jateko parte-hartzaile guztiekin batera abestu zuten. Aizpuruaren abesti kuttunena zen hura.



Sorabillako Harrera Etxeak ate irekien jai ospatu zuen larunbatean. AIURRI



Harrera etxera hurbildu ziren hainbat lagun, jaiaz gozatzeko. AIURRI



Axun Gonzalez, Valentina Cabanillas eta Antonio Barbado, sukaldeko ardurekin jo eta su. AIURRI



Sagardo dastaketan, batzuk zerbitzen, besteak dastatzen. AIURRI



Zikiri jatea beti izaten da arrakastatsua Sorabillan. AIURRI

Gaztelekurekin elkarlanean



Zikiri jatean eskertza ekitaldia egin zuten, "Puri" omentzearekin batera. AIURRI

Eskertza Sorabillako jai Batzordeko kideek Gazteleku pilota eskolari eskerra azaldu zioten, jaien antolakuntzan eskainitako laguntzagatik. Mateo Poncek eta Andoni Alvarezek oroigarria jaso zuten.



Gaztelekuko zenbait pilotari gazte. AIURRI



Aloña eta Garbiñe Ugaldek, eta, Elixane eta Alaine Jauregik Iturzaetako errebantxa jokatu zuten. Gorriak nagusitu zen (25-12). AIURRI



Mutiletan, Koldo Ponce, Xabier Alkorta eta Julen eta Ander Loidi aritu ziren. Gorriak nagusitu ziren (25-20). AIURRI



andoaINDARRA
euskaraz

Publi erreportajea ESKUALDEA

Ikasturte berriarekin batera izan ohi da promesak egiteko garaia. Hizkuntzak ikasi, kirola egin, antzerkian edo dantzan hasi... Horietan denetan, bada apustu segurua den hautua: norberaren hizkuntza propioa hobetzea. Buruntzaldea eskualdeko euskaltegiek eskaintza zabala dute 2019-2020 ikasturterako, ordutegi eta maila guztiekin. Bada, gainera, beste abantaila bat. Eskualdeko udalen helburua matrikulazioak bultzatzea da, eta, horretarako, diru laguntza sortak eskaintzen dituzte. Laguntza horiek HABEk ematen duenarekin bateragarriak dira. Horrenbestez, Buruntzaldeko herritarrei ia doan, eta kasu askotan, doan atera dakieke ikastaroa; apustu segurua da euskara ikastea.

Ikasturtea hastera doa. Iaz, 2017-2018koan, 924 ikasle aritu ziren euskaraz ikasten Buruntzaldeko euskaltegiaren batean. Gehienak, emakumeak: %67,9. Eskualdeko Euskara Zerbitzuen helburua da ikasle gehiago izatea; 1.000 ikasleetara iristea dute buruan.

Oraindik 2018-2019 ikasturteko datuak itxi gabe dituzte, eta, beraz, irail amaiera arte ezingo dira matrikulazioen behin betiko kopuruak jakin. Edonola ere, orain arte bildutako erreportatuta, baikor agertu dira eskualdeko euskara teknikariak. Udarako ikastaroen datuen faltan, matrikulazio gutxi batzuk behar dira muga hori gainditzeko.

Zortzi euskaltegi daude guztira eskualdean. Bina Lasarte-Orian eta Hernanin, eta bana Urnietan, Hernanin, Andoainen eta Usurbilen.

Eskualde osoko eskaintza aintzat hartuta, non aukeratua badago. Astelehenetik ostiralera, zortzi euskaltegi horietan bakoitzaren beharren arabera ikastaroak ematen dituzte. Hasteko, maila aldetik; A1, A2, B1, B2, C1 eta C2 egiteko aukera dago. Baita ordutegi aldetik ere; eskolak goizetan, eguerditan eta arratsaldetan, iluntzera arte daude. Nork bere kabuz autoikaskuntzan ikasteko abagunea ere badu. Tutoretzak, programazio pertsonalizatuak eta mintza-saioak eskaintzen ditu ikastaro mota horrek.

Eskolez gain, beste alderdi praktikoagoa ere eskaintzen



Euskaltegiatako ikasleak, apunte artean, ikasturte amaierako azterketarako prestatzen. BURUNTZALDEKO UDALAK

Euskara hobetu, aukera baliatu

Buruntzaldeko udalek euskaltegiatako matrikulak ordaintzeko diru laguntzak ematen dituzte, euskara ikastea bultzatzeko. Ikasleari ia doakoa, edo kasu askotan, doan atera dakieke ikastaroa. Gainera, eskaintza zabala dago eskualdean: zortzi euskaltegi daude

dute euskaltegiek: Mintzalaguna egitasmoaren bidez, astean behin 5-6 pertsonako taldeekin biltzeko aukera dago, euskaraz aritzeko. Beste ekintza osagarriak ere eskaintzen dituzte euskaltegiek, hala nola, irteerak, txangoak...

Udalen laguntza

Buruntzaldeko udalek ematen dituzte diru laguntzak euskara ikasteagatik. Halere, herri bakoitzean laguntza horiek jasotzeko baldintzak eta diruz lagundutako kopuruak desberdinak dira. Baina badira ezauga-

**"EZ ZITZ AidAN
BIDEZKOA IRUDITZEN
NIRE HIZKUNTZA
MENPERATU GABE
BESTE BAT IKASTEAN"**

rri komun batzuk. Esaterako, gutxieneko asistentzia bete behar da, eta erroldatuta egon behar da herrian bertan. Langabetuei are laguntza handiagoak ematen dizkiete; %100 kasu batzuetan, 500, 600 edo 664 euro arteko mugapean, aldeak baitaude herri batzuetatik besteetara.

Horrez gainera, HABE Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak ere laguntzak ematen ditu. Ondokoak dira baldintzak: batetik, 2018ko martxoaren 23tik 2019ko abuztuaren 31ra bitarteko epealdian euskaltegi edo euskararen zentro homologatu batean matrikulatuta egon beharko da; bestetik, 2018-2019 ikasturtean HABEren maila bat edo baliokideren bat egiaztatu beharko da. Diru laguntza horiek egiteko eskabidea 2019ko irailetik aurrera egin daiteke.

Hain zuzen, diru laguntzek erakarrira ematen dute izena ikasle batzuek. Askotariko arrazoiak dituzte euskara ikasteko. Batzuek lana dela-eta titulu ofizialen bat atera nahi dute. Pili Meiraren kasua da. Astean zazpi ordu eta erdi ematen ditu, arratsaldetan. "Goizetan lan egiten dut, gero ume txikiekin nabil, baina euskara ikasteko denbora ateratzen dut. Merezi du ahaleginak".

Autoestimik gora

Jonek, ordea, ez du titulurik behar. "Aspaldi euskara landu gabe nuen, eta konturatu naiz asko dakidala. Autoestimua asko indartu dit euskaltegiak. Inglesa nahi nuen ikasi, baina ez zitzaidan bidezkoa iruditzen norberaren hizkuntza menperatu gabe beste bat ikasten hastea".

Buruntzaldeko udalen diru laguntzak

Andoain

- Baldintzak: Andoainen erroldatuta egotea. Gutxieneko asistentzia: %85.
- Diru laguntza: Matrikularen %85 guztiei; familia ugariakoak edo diru sarrera murriztuak dutenei, %100. Autoikaskuntza, %100. 664ko muga.

Astigarraga

- Baldintzak: Astigarragan erroldatuta egotea. Gutxieneko asistentzia: %85.
- Diru laguntza: Kasu guztietan 600 euroko muga izango du laguntzak. Matrikularen %75. Langabetuei, merkatariari eta 12 urtetik beherako haurren bat dutenei: %100.

Hernani

- Baldintzak: Erroldatuta egotea. Gutxieneko asistentzia: %85.
- Diru laguntza: Matrikularen %70. Langabeei, %90. 500 euroko muga.

Lasarte-Oria

- Baldintzak: Erroldatuta egotea. Gutxieneko asistentzia: %85.
- Diru laguntza: Matrikularen %85.

Urnietan

- Baldintzak: Urnietan erroldatuta egotea. Gutxieneko asistentzia: %80.
- Diru laguntza: Langabeei, %100. Besteei, %85. 500 euroko muga.

Usurbil

- Baldintzak: Erroldatuta egotea. Asistentzia: %80.
- Diru laguntza: Guztiei, matrikularen %100. 600 euroko muga.

Buruntzaldeko udalek %70 - %100 artean diruz laguntzen dute euskara ikastea!



**EUS
ka
ra
ikasiz**
Erabiliz ikasi,
ikasiz erabili



buruntzaldea.eus

Jo gogoko duzun euskaltegira eta izena eman!

<p>ANDOAIN Andoingo AEK Plazaola, 2. andoain@ae.eus 943 591 704</p>	<p>LASARTE-ORIA Muntteri AEK Euskaltea Geltoki kalea 17 Behea 943 372 863 lasarte@ae.eus</p> <p><i>Lasarte-Oriako Udal Euskaltea</i> Bekokale bidea, 1 (anbulatorioaren gainean) 943 36 16 21 euskaltea@lasarte-oria.eus</p>	<p>HERNANI Hernaniko AEK Larramendi 11 943 557 801 607592864 Zilegi eskola: 663043314</p> <p><i>Hernaniko Udal Euskaltea</i> Karobieta 63 (anbulatorio zaharra) euskaltea@hernani.net 943 331 896</p>	<p>USURBIL Etumeta AEK Euskaltea Kale Nagusia 43, Behea 607 609 379 usurbil@ae.eus</p> <p>URNIETA Urnietako AEK Euskaltea Errekalde kalea, 1 662 338 747</p>
<p>ASTIGARRAGA Astigarragako AEK Kultur etxea. Nagusia 48. eta Nabarra Oñatz 3 607610687</p>			

Plazaola eta Leitzaran barrena, igande honetan

LASTERKETAK Josu Arregiren hirugarren aldia izango da Plazaolako natur bideko maratoian parte hartzen duela. Guztietan 26 kilometroko lasterketa egin du, Leitza eta Andoain artekoa. Baina ez du baztertzeko etorkizunean Lekunberri-Andoain egitea

Mikel Arberas ANDOAIN

37 urteko korrikalaria. 2015ean hasi zen lasterketetan parte hartzen, eta jada dozenaka egin ditu. Lehen egun hartatik aurrera, ezin izan dio korri egiteari utzi.

Duela gutxi hasi zinen lasterketetan parte hartzen, baina zenbatetan hartu duzu parte?

Denbora gutxi daramadan arren, dagoeneko 114 lasterketetan parte hartu dut. Bai, harrapatuta nauka lasterka egiteak.

Plazaolako natur bideko maratoia zenbatetan korritu duzu?

Birritan parte hartu dut, eta bietan 26 kilometrokoa egin dut, Leitzatik Andoainera. Agian, urteren batean, Lekunberri animatuko naiz. Batek daki.

Zer du lasterketa honek berezia, gainerakoekin alderatuta?

Andoaindarrak garenontzako, horren berezia den Trentxikitik doa eta lasterketa herrian amaitzen da, Hollywooden pareko alfonbra gorria zeharkatu behar da; etxekoen, lagunuen eta eza-gunuen animoen eta txaloen artean.

**Lasterketa hau ezberdina da, ibilbidearen gehiengoa aldapan behe-
ra da...**

Leitza inguruko malda kenduta guztia aldapan behe-
ra da, baina ibilbide eroso-
a dirudien arren,



Josu Arregi iaz, Plazaolako lasterketan helmugara iritsi zen ulean. **AJURRI**

muskularki oso gogorra da. Egin ditudan lasterketa guztietatik, okerren bukatu dudana izan da, hankeko muskulu bikien gainkargatik.

Kanpoko jende asko etortzen da Plazaolako maratoian eta maratoi erdian parte hartzera...

Lasterketa polita delako. Erronka handia da Lekunberri-Andoain (42 kilometro), edo Leitza-Andoain (26 kilometro) egitea. Paraje oso ederretatik zoaz, tunelak zeharkatzen. Ibilbide guztian zehar jendea animatzen egoten da. Gainera, antolakuntza izu-

garria da. Goizean goiz Leitzara eta Lekunberriera eramaten zaituzten autobusak daude. Bidean zehar hornidura gune ugari daude, indarrak berreskuratzeko. Eta, lehen esan dudana, bukaera oso berezia da. Andoaindarrentzat, bereziki.

Aurten berrikuntza bat egonen da, 10 kilometroko lasterketa Andoain barrena. Zer iruditzen zaizu?

Hasiera batean asko harritu ninduen. Ez dakit ibilbidea nola eta nondik egingo duten, baina aukera hori egotea oso ondo dagoela iruditzen zait. Egongo

da norbait 26koa edo 42koa egiteak atzera botako diona. Saio motzagoarekin aski zaio, ziu-
rrenik. Lasterketa motza egiten ondo pasa duenak, agian beste edizio batean 26ko edota 42koa egiteko erronkari euts diezaioke.

Plazaolako natur bideko maratoiak naturarekin kontzientziatzeko balio lezake?

Plazaolako lasterketa, batez ere, naturarekin kontzientziatzeko balio beharko liguke. Hornidura-guneetako edalontziak edonon ez botatzeko eskaera egingo nieke lasterkariei. Leku liluragarri honi errespetu apur bat zor diogula uste dut. Agian, eta ondo irudituko litzaidake, autengo Tolosako T2T eta T3T-an bezalaxe, edatekoa bakoitzak eramango balu. Plastikozko edalontziak ez zeudenez, mendiak askoz ere gutxiago zikindu ziren.

Kasu ia gehienetan korrikariak errespetuz jokatzeko du. Eta antolatzaileek ere erraztasunak jartzen dituzte mendiak garbi mantentzeko. Eta hori eskertzekoa da.

Euskal Herrian Plazaolako maratoia entzutetsua egin dela dirudi...

Hori dirudi. Aurtengoarekin laugarren edizioa da, eta pixkanaka zer esan handiagoa du korrikalarien artean. Beste lasterketetan ibiltzen diren ezagun ugari gerturatuko dira oraingoa. Gainera, hamar kilometroko distantzia erantsita argi dago jende kopurua nabarmenki handituko dela. Eta ez Andoainen soilik, Maratón Vías Verdes ekimenaren baitan antolatutako beste hiru lasterketetan (Madrid, Girona eta Castellon) gauza bera pasa da.

Plazaolako lasterketan parte hartzeko zalantzan dagoen jendeari zer esango zenioke?

10, 26 eta 42 kilometroko hiru lasterketa

Igande honetan Plazaola natur bideko maratoiarekin edizio berriko lasterkariak Goikoplazara iritsiko da. Bezperan, arratsaldeko 18:00tatik 20:00tara, dortsalen banaketa egingo dute Goikoplazan.

Aukeran hiru lasterketa ezberdinetan parte hartzeko aukera dago:

- 42 kilometro: Lekunberri-Andoain.
- 26 kilometro: Leitza-Andoain.
- 10 kilometro: Andoain-Andoain.

Animatzeko esango nieke. Giro ederra, ingurugiro ezin hobean, esperientzia polita da. Aurten hiru distantzia egonda, hamarrekoarekin has daitezela besteak gogorregiak direla iruditzen bazaizkie. Beste edizioetan lasterketa luzeagoetan parte har dezakete. Gainera, andoaindarrentzat leku maitatua da Plazaola, askotan joaten baikara Trentxikira entrenatzera eta, bertan, korrikalari askorekin bat egiten baitugu.

Lasterketak hobetzeko zerbait gomendatu nahiko zenuke?

Lehen aipatu bezala, plastikozko edalontziak ez jartzea proposatuko nuke. T2T eta T3T lasterketetan bezala, bakoitzak bere edalontzia edo kantineplora eramatea, eta hornidura-guneetan betetzea. Horrekin ingurugiroa garbi egotea bermatuko genuke.

Denboraldi berria hasi aurretik, Leizaran taldearen txapelketa

ESKUBALOIA Euskadiko senior ligan ekingo dio Urnietako mutilen lehen taldeak, datorren irailaren 22an

Erredakzioa ANDOAIN

Denboraldi berriari ekiteko egunak besterik ez dira falta. Urnietako lehen taldeak Urdanetan ekingo dio denboraldiari, irailaren 21-22ko asteburuan. Leizarangoek asteburu berean,

Gipuzkoako txapelketan. Leizarangoek, ordea, atsedenaldira izango dute lehen jardunaldian.

Denboraldia abiatzear denean, Leizaran eskubaloia taldeak aurre denboraldiko lagunarteko txapelketa antolatu du. Egun

osoan zehar maila guztietako taldeek parte hartuko dute, eta arratsaldean jokatuko dira finalak eta nagusien partidak. Iluntzean, sari banaketa ekitaldia.

LARUNBATEAN ALLURRALDEN

- 15:15 Kadeteak: 3-4 postuak.
- 16:10 Infantilak: A eta B taldeetako finalak.
- 16:50 Kadeteak: Finala.
- 17:45 Jubenilak: Leizaran – Corazonistas.
- 19:15 Seniorrak: Leizaran – Corazonistas.

TORNULARIAK

Lehen mailako ofizialak behar ditugu CNC tornoan lan egiteko

Interesatuak bere CVa ondorengo helbidera bidali beharko dute:

Talleres Mixelena, S. Coop,
Eziago poligonoa 21, 20120 Hernani

2019/09/20 baino lehen

info@talleresmixelena.com

mixelena
LARGE-SCALE CUSTOM MACHINING



Mikel Iturria txirrindularia helmugara iritsi zenean. RTVE

Arrastoa utziko duen garaipena

TXIRRINDULARITZA Lau egun pasa dira. Eta ez dago beste gairik. "Hi, Iturriarena zer? Hori duk balentria, hori! Majo sufritu genian telebistan, motel!". Edota "irratia entzuten nentorreen autoan, eta Jon Altunari entzuten ia-ia errepidetik atera ninduan! Hau poza!"

Andoni Urbistondo URNIETA

Eta ni, eta gu, eta zuek, eta Urnieta osoa. Alkatea bera ere bai, pentsa! Eta Euskal Herriko jende asko. Haserre egongo ziren bakarren batzuk, noski: Howson, Craddock, Cavagna bera... Lastrek ere motiborik bazuen, bigarren helmugaratu baitzen Urdazubin, baina Bilbokoak Mikel Iturria zoriondu zuen: "Chapeau!. Merezita lortu du garaipena".

Urdazubi. Mikel Iturriak mundu hau utzi arte gogoan izango

duen herrixka. Igual erratuko naiz, baina urnietarrak bere kirol ibilbidean lortuko duen garaipenik distiratsuen izango da. Espainiako Vueltako etapa bat!. World Tour mailako 18 talde eta maila bikaineko 150 txirrindulariren aurka. Txikiak handia jaten duen utopia horietako gauzatu zuen Mikelek. Eta kirol lorpenak are gehiago ederresten dituen ezinbesteko osagaiarekin: epika.

Epikoa izan baitzen Iturriaren garaipena. Ahulenaren, edo ahu-

lenetakoaren matxinada. Ondoan zituen zaldien oinkadei eutsi ezin, baina amore eman ez. Inoiz ez. Eta ausartu. Eta sufritu, hortzak estutu, errezatu, amets egin. Etxetik lanera abiatu nintzenez, Iturria jokoz kanpo zegoen erabat, etapa garaipenetik oso urrun. Urnietatik Miramonera doan tartean 44 mezu neuzkan watsapean. Ze kristo? "Hor ziek!". "Daleeee!", besteak. "Garrote batean ziek!", hurrenak. Erredakzioko telebistan, Mikel ihesean, bakarrik. Trantzea. 45

segundo. Goazen! 30 segundo, 17 kilometro. 15 segundo, 10 kilometro!". Jodeeerrrr! Eta Dantxarinereko biribilguneetan Howson egurrean, bultza eta bultza. 1.500 metro loriarako, baino zer, zenbat segundo? Lau? Bost? "Akabo!"

"Etapa hau galtzen badik hondo jo eta ez duk errekupeko!" pentsatu nuen niretzat... Baina miraria egin zen. Maldan behera egiten zuen azken kilometroak. Eta iritsi egin zen. Eta ospatu. Eta kazetarien mikrofono goseari eutsi. Eta podiumera igo! Gero prentsaurrekoa, zorion mezuak, afaria, txanpaina, etapa errepikatua ikusi gauean, logelako telebistako intimitatean. Asteazken goizeko Mikel Iturria eta ostegun goizekoa erabat ezberdinak izango dira. Ez dut nik esaten, Antonio Alix Eurosport-eko esatariak esan zuen: "Te va a cambiar la vida, chaval!".

Euskadi-Muriasek tropelean jarraituko duen ez dakigu, mehezimenduak sobera egin baditu ere. Mikel Iturriak 2020an tropelean tokia izango ote zuen ez genekien. Orain badakigu. Izango du, egon lasai. Vueltako etapa batek etorkizuneko laino beltzak txistu batean eramaten ditu. Eta ni, gu, asko, bera animatzen izango gara, doan tokian. Picon Blancon, Neilan, Arraten, Dolomitetan... Saiatzen direnei, sufritzen dutenei animatzen. Beti. Iturriak gorriak ikusi dituelako, eta infernutik pasa denak zeruan gehiago gozaten duelako. Afizionatuetara bueltatu zenean, adibidez. Edo bi urte atzera, Limousingo Tourrean izterrezurra hautsi eta 59 puntu eman zizkiotenean. Hilabete luzeak egin zituen bizikletan berritri minik gabe ibiltzeko.



Jose Luis Barberena. AIURRI

Andoaingo Txirrindulari Eskola

Irrintzi tabernan egon ohi da txirrindulari eskolako "alma mater"-a. Iturriaren garaipena bertan ikusi zuen. Pozarren zegoen: "Bere garaipena oso garrantzitsua da denontzat. Andoaingo Txirrindulari Eskolari bultzadaxoa emango dio".


Asteazkena, etapa irabazi eta gutxira. Telefonoz deia, Iturriari, Euskadi Irratian bere hitzak biltzeko: "Zorionak!", nik. "Esan nian, ondo nengokeela". Desio bat, bukatzeko. Igandean, Madrilen, parranda handia bota dezatela, Iturriak eta taldekideek, lanak ondo egin baitituzte. Eta indar apur bat gorde dezala Urnietan egingo diogun omenaldi berorako. Bere izena hizki larritan gordeta geratuko da gure herri txikiko historia aberatsean.

Senideen emozioa eta poza

Euskal Herritik igaro zen Vuelta, eta Iturriaren aita, anaia eta gainerako senideak Mikel errepide ondotik animatzera abiatu ziren. Marian ama Irrintzi tabernan geratu zen, norbaitek Ama Kandidako taberna zabalik izan behar baitzuen. Batzuk eta besteek emozioz beteriko uneak bizi izan zituzten. Amak Jon anaia hitz egitea nahiago zuen, bezperako garaipenaren osteko

irribarrea ahotik kendu ezinik. Poza, eta harrotasuna. Horiexek bizi izan zituzten Iturriatarrak, aurreko astean. Aurretik, ordea, majo sufrirituta. Jonek horrela gogoratzen du irailaren 4ko arratsaldea: "Etapa etxetik gertu igarotzen zela baliatuta, hara gerturatu ginen etxeko batzuk. Guretzat, txirrindularitzari loturiko beste egun bat zirudien. Ihesaldiaren berri izan genuen, eta

itxaropena orduan piztu zen. Portuan gora geunden, eta pantaila bidez ikusten ari ginen etapa. Portuan behera, helmugara bidean, telefonoan deiak eta mezuak iristen ari zitzaizkidala jabetzen hasi nintzen. Zerbait gertatu ote zen pentsatzen ari nintzen, eta orduan jakin genuen ihesaldian bakarrik zihoala. Helmugara bitartekoa eromena izan zen.



Jon anaia eta Marian ama. AIURRI

Eskuz banakako txapelketa abiatu da Xoxokako frontoian

PILOTA Eskuz banakako txapelketa antolatu du auzoko jai batzordeak, irailean zehar jokatu dena

Jon Ander Ubeda URNIETA

Abuztuko deialdiari 32 helduk erantzun zioten. Haurren mailan ligaxka antolatzea erabaki dute. Asteartean jokatzekoak ziren helduen mailako lehen partidak, baina eguraldia dela eta asteazkenean ekin zioten. Lehendik partida bat jokatu da: Jon Pagola 22-10 Jon Otegi.

Irailak 12, osteguna:

18:30 Beñat Arruti – Eneko Aizpurua.
19:00 Aitor Pagola – Aritz Sorron.
19:30 Julen Gabirondo – Josu Mujika.

Irailak 13, ostirala:

18:00 Mikel Zumeta – Aitor Amondarain.
18:30 Beñat Zinkunegi – Eneko Jauregi.

Irailak 14, larunbata:

16:00 Mañex Otegi – Suharri Irazustabarrena.
16:30 Imanol Fagoaga – Erlaitz Arrieta.
17:00 Mikel Etxeberria – Beñat Urruzola.

Irailak 15, igandea:

16:30 Peio Martin – Axier Belaunzarán.

Areto futbol txapelketa

Irailaren 13an amaituko zaie taldeei izena emateko aukera. Eta datorren irailaren 19an txapelketa antolatzeko bilera egingo dute Arraten. 14 talde onartuko dituzte gehienez ere, eta izena emateko prezioa 390,20 eurokoa da. Udalak Sport Madness ekimenarekin batera jarraituko du txapelketa antolatzen.

Nordic Walking Urnietan

Kirol jarduera sustatzeko bi hitzaldi eskainiko ditu Xabier Madinak, datozen egunetan. Lehenengoa irailaren 17an izango da, jubilatuen egoitzan (19:00). Eta bigarrena irailaren 19an, Lekaion (19:30). Irailaren 20an hasita, gainera, hiru orduko ikastaroak eskainiko ditu Urnietako kiroldegian. Kiroldegian bertan eman daiteke izena.



HUESCALAMAGIA

Euskaldunarekin asteburu pasa

MENDIZALETASUNA Andoaingo mendizale elkarteak bi irteera antolatu ditu, asteburu honetarako. Larunbatean Sallentetik abiatuko dira, eta mendizaleek Respomusoko aterpera iristeko bi ibilbideen artean aukera egin ahal izango dute. Igandean Respomusotik Gran Fachara igoko dira, ondoren Sallent aldera jaisteko. Informazio osoa euskaldunamt.com webgunean.

Denboraldiaren hasiera

FUTBOLA Federatu mailako Urnieta eta Euskalduna taldeentzat asteburu honetan abiatuko da denboraldi berria. Urnietako nesken lehen taldea eta Andoaingo mutilen lehen taldea maila berrian arituko dira

Erredakzioa ANDOAIN

Ikasturtea hastearekin batera, federatu mailako denboraldiari ere hasiera emango zaio. Asteburu honetan jokatuko dira partida asko, eta horietako batzuk Andoainen eta Urnietan. Mailari dagokionez, Euskaldunako mutilen lehen taldea eta Urnietako nesken lehen taldea maila berrian arituko dira. Eta biak ala biak etxean arituko dira, asteburu honetan. Denboraldi berriaren aurkezpen modura Larramendi txapelketa eta Ricard-Begristain memorialak jokatu ziren, aurreko asteburuan.



Larramendi txapelketan Euskaldunako neska eta mutilak garaile izan ziren. AIURI



Ostadar eta Hernani taldeak gonbidatu zituzten aurtengo Ricard-Begristain memorialera. Larunbat goizean jokatu zen, eta arratsaldean Urnieta KE-k denboraldi berriaren aurkezpen ekitaldia egin zuen. UKE

LEHEN JARDUNALDIA

ANDOAIN - UBITARTE

09:00 Euskalduna KadN-Intxurre / Lar, 14
10:30 Euskalduna InfT-Billabona / Lar, 14
12:00 Euskalduna Kad1-Usturbil / Lar, 14
16:00 Euskalduna SenN-Oiartzun / Lar, 14
17:00 Euskalduna SenM-Urola / Ig, 15

URNIETA - FUTBOL ZELAIA

10:00 Urnieta KadM A-Hernani / Lar, 14
12:00 Urnieta SenN-Askartza / Lar, 14
15:30 Urnieta SenM-Askartza / Lar, 14
12:00 Urnieta KadN-Mundarro / Ig, 15



ERROIZPE

Mendi irteera Zanpatuzekin

MENDIZALETASUNA Larunbat honetarako mendi zeharkaldia antolatu du Zanpatuz taldeak. Berastegitik hasi eta Erroizpe eta Ulizar zeharkatu ondoren, mendizaleak Berastegira itzuliko dira. 18,7 kilometroko zeharkaldia da, 1116 metroko desnibela duena. Goizeko 08:00tan irtengo dira Matxo taberna paretik, eta itzulera 18:00ak aldera izango da.

Buruntzaldea IKT taldearen deialdia, ikasturte berrirako

IGERIKETA 2019/2020. ikasturterako izen-ematea zabaldu dute Buruntzaldea IKT taldekoek. Eskaintza oso zabala da: eskola mailako igeriketa eta federatu mailako igeriketa, igeriketa egokitua, parte hartze igeriketa, estiloak, master igeriketa, ur poloa edo waterpoloa. Eskarmentu handiko lan taldea da, eskualdeko igerilarien artean ibilbide oparoa osatzen ari dena. Informazioa: 696 506 632 info@buruntzaldeaikt.eus

Nahia Zudaire

Klubeko igerilaria Londonen egon berri da, igeriketa egokituko Munduko Txapelketan parte hartzen.



Justo Lillo eta Yera Martin Ubitarte zelaian. Asteburuan hasita, futbol giroa itzuliko da Andoainera. Gipuzkoako mailarik gorenean, gainera. AIURRI

Mikel Arberas ANDOAIN

Lehen urtea da elkarrekin entrenatzen ariko zarete. Zer moduzko hasiera izaten ari da?

Justo Lillo: Ez nuen Yera ezagutzen, baina oso gustura nago berarekin. Momentuz bion artean ari gara lanean, eta oso gustora benetan.

Yera Martin: Nik ere ez nuen ezagutzen, baina oso gustura. Gainera, esperientzidun entrenatzailea da. Ahal den neurrian lagundu nahi dut, eta duen esperientziatik ere ikasi.

Zer aportatu diezaiokezue jokalariei?

J.L.: Esperinetzia batez ere, eta lana. Uztailaren 24an hasi ginen entrenatzen eta ia egunero genituen entrenamenduak. Zerbait lortu nahi bada lan egitea beharrezkoa da, eta nire kasuan esperientziak lagundu dezaket. Y.M.: Nire aldetik lana egiteko gogoia eta, batez ere, ilusioa. Maila berria da, eta erronka horri gogotsu ekingo diogu.

Aurre denboraldian nola ikusi duzue taldea?

J.L.: Nabari da taldea mailaz igo dela eta jokalariek pozik daude, gogoekin. Gainera, jendea kanpotik ekarri dugu taldea osatu behar genuelako. Gazteak direnez, nabari da gogotsu daudela eta Euskaldunako parte izan nahi dutela.

Y.M.: Talde gaztea da eta kanpoko asko etorri dira, baina bertakoen eta kanpoko artean konexio ona sortu da. Lan giro polita dago eta intentsitate handiarekin entrenatzen ari dira.

Erronka berria hastear da

FUTBOLA Justo Lillo eta Yera Martin izango dira Ohorezko Regional mailako Euskalduna SD taldeko entrenatzaileak. Taldea osatuta kategorian mantentzen eta helburu berriak lortzen saiatuko dira

Talde indartsua eta osatua lortu duzuela uste duzue?

J.L.: Indartsua bai, baina maila honetan lehiatzeko besterik ez. Nik beste mailak ezagutzen ditut eta badakit aurtengoa gogorra izango dela, baina lehiatzeko eta guztia emateko prest gaude.

Zer nabarmenduko zenukete taldeari buruz?

J.L.: Maila honetan lehiakortasuna nabaria da, baina guztiek nahi dute jokatu. Duela gutxi jakin dut beste jokalaririk bat minarekin dagoela, eta ea astearretik aurrera ondo dagoen ligan.

"LEHIKORTASUNA NABARIA DA MAILA HONETAN, GUZTIEK NAHI DUTE JOKATU"

JUSTO LILLO, LEHEN ENTRENATZAILEA

ko lehen partidatik lehiatzen hasteko.

Y.M.: Jende gaztea da, futboleko jokatzeko eta lehiatzeko gogo bizia dute. Entrenamenduetan eta lagunarteko partidatan ikus daitezke lehiatzeko prest daudela; eta jokalariek asko dauden arren, titullarrak izateko gai direla erakutsi nahi dute zelaian.

Gipuzkoako Ohorezko Erregional maila gogorra al da?

J.L.: Erregional mailan eta Preferentetan, normalean kuadrila modukoak dira. Ohorezko Regionalean berriz, Hirugarren mailan ibilitako jokalariek ikus daitezke. Horiek badakite lehiatzen, teknikoki beste maila bat dute eta askotan fisikoki gehiago dira.

Y.M.: Ezin dut iritzi osorik eman, ez baitut maila entrenatzaile bezala ezagutzen; soilik beste urteetako sailkapena, emaitzak

eta partidak jarraitzearen esperientzia dut. Hala ere, nabaritu dut jokalariek maila altua talde gehienek izango dela.

Zein da zuen helburua ligan?

J.L.: Ez dut konformistaren irudia zabaldu nahi, baina kategorian mantentzen badugu lorpen bikaina izango da. Lehen jardunaldietako emaitzak ikusi behar dira, nola moldatzen garen ikusteko.

Y.M.: Ez dugu helburu finko bat jarri. Denboraldi erdian ikusiko dugu zein postuan gauden eta, orduan, ikusiko dugu taldearen helburua zein den.

"JOKALARI ASKO DAUDE, ETA TITULAR IZATEKO GAI DIRELA ERAKUTSI NAHI DUTE"

YERA MARTIN, 2. ENTRENATZAILEA

Denboraldi berriko taldekideak

LANTALDE TEKNIKOA:

- Lehen entrenatzailea: Justo Lillo.
- Bigarren entrenatzailea: Yera Martin.
- Fisioterapeuta: Leire Ezquerro.
- Delegatua: "Bixkai".

JOKALARIAK:

1. Josu Dominguez, atezaina.
2. Ander Setien, defentsa.
3. Alain Ugartemendia, defentsa.
4. Jonay Venero, erdilaria.
5. Markel Iruin, defentsa.
6. Xabat Maiotz, erdilaria.
7. Joanes Iturrarte, aurrelaria.
8. Alvaro Toledo, erdilaria.
9. Dani Sanchez, aurrelaria.
10. Aritz Chouza, aurrelaria.
11. Julen Barandiaran, erdilaria.
13. Koldo Galarreta, atezaina.
14. Eneko Idigoras, erdilaria.
15. Unai Azcue, defentsa.
16. Gonzalo Jambina, defentsa.
17. Marouane Idelhadj, aurrelaria.
18. Martin Mendizabal, erdilaria.
19. Iñigo Arruabarrena, defentsa.
20. Iñigo Deusto, aurrelaria.
21. Iker Ipintza, defentsa.
22. Esteban Astariaga, erdilaria.
23. Luis Perez, defentsa.
25. Ander Iriarte, atezaina.
26. Joel Echeverria, aurrelaria.

LEHEN JARDUNALDIA

Euskalduna-Urola. Igandea, 15. 17:00.

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 12

ESKUALDEA Euskara

AEK euskaltegiaren matrikula zabalik:
Andoain, 943 591 704.
Urnieta, 662 338 747.

URNIETA Udal ikastaroak

Izena emateko aukera zabalik
Sarobe eta Lekaio.

URNIETA Hitzaldia

47ak herrian ekimena, Amaia Esnal
 eta Kudu herrikideak hizlari.
19:00, Lekaio.

OSTIRALA 13

URNIETA Jaia

Urnietako auzoan jaia.
18:30, Txupinazoa. Etxeberri plaza.

LARUNBATA 14

ANDOAIN Kalegiroan

"Chef nature" antzerki emanaldia.
18:00, Zumea plaza.

URNIETA Jaia

11:30, Ginkana. 12:00, Zumba. 13:30,
 Bazkaria. 15:30, Eskulanak. 16:30,
 Bingoa. 18:00, Haiek naiz ikuskizuna.
 19:00, Patata tortilla lehiaketa. 21:00,
 Afaria. 22:30, DJ Katxorro.
Egun osoan zehar. Etxeberri plaza.

BILBO Manifestazioa

"47ak herrian". Busa eskualdetik:
15:30, Makaldegia. Andoain.
15:30, Matxo taberna. Urnieta.



Ospakizunak ostiralean eta larunbatean izango dira. AIURRI

URNIETA Etxeberri auzuneko jaian hasiera

18:30 Txupinazoa. **11:30** Ginkana.
19:00 Apar festa. **19:00** Patata tortilla lehiaketa.
20:00 Musika emanaldia. **21:00** Afaria.
Irailak 13, ostirala. Irailak 14, larunbata.

IGANDEA 15

ANDOAIN Lasterketa

Naturbideen maratona: Leitza-Andoain.
 Informazio gehiago 10. orrialdean.
Helmuga Goikoplazan.

LARUNBATA 21

ANDOAIN Kalegiroan

"Emportats" zirku emanaldia.
19:00, Goikoplaza.

IGANDEA 22

URNIETA Igerilekua

Udal igerilekua zabalik izango da.
Azken eguna. Ohiko ordutegia.

ANDOAIN Musika

"Leitzaran omenduz", Unanibiari
 eskainitako ereserkiaren aurkezpena
 egiteko. Berrondoren ereserkiari
 Oiarzabalek musika ipini dio.
 Euriarekin, San Estebango basilizan.
12:30, Unanibia.

ZINEMA



ANDOAIN

ZINEMA

**Erase una vez
 Hollywood**
 Larunbata, 14:
 19:30, 22:30.
 Igandea, 15:
 19:30.


Astelehena, 16:
 19:30, 22:30.

El rey Leon

Lar, 14: 17:00.
 Ig, 15: 17:00. 3D

Quien a hierro mata

Irailak 21,22 eta 23.



SINOPSIS



Once Upon a Time in... Hollywood

Zuz.: Quentin Tarantino. **Herr.:** AEB (2019). **Generoa:** Thrillerra, komedia. **Aktoreak:** Leonardo DiCaprio, Brad Pitt, Margot Robbie, Emile Hirsch, Margaret Qualley, Al Pacino. **Iraupena:** 165 minutu.

1960ko Hollywood gogoan

Hasteko eta behin, Tarantinoren film berriena da. Eta horrek filmari bere zigilu propioa ematen. Bestetik, berriro ere takillan izar diren aktorez inguratu da. Eta hirugarrenik kultur garaikidean ezagun egin zen kasua ekarri du gogora. Tate aktorea Polanski zuzendariarekin ezkontuta zegoen, eta aktorea Mansonekin zegoela hilik agertu zen. Film honetan, gertaera ezagun hura, garai hartako zinemaren meka bilakaturako Hollywoodeko bi aktoreen ibilerekiko uztartu ditu.

Bi aktore horiek Di Caprio eta Pitt dira. Lehena, iragan loriotzua izandako aktorea. Bigarrena, haren eszena arrakatsua eta bortitzak egiten dituen ordezkio aktorea.

Ohikoa den bezala, Tarantinoren filmak kritika ugari eragin ditu. Gehienak onak, baina ohikoa denez, film berria aurkezten duen aldiro haren filmen aldeko eta aurkako eztabaidak piztu ohi dira.

Zinemazaleek eskaintza oparoa dute asteburuan Andoainen, arratsaldeko sesioan El Rey Leon eskainiko baitute.

Azoka

Bigarren eskuko objektuen XV. azoka iristear da Andoainera. Irailaren 28an izango da Zumea plazan, 10:00etatik 14:00tara. Parte hartzea irekia da. Antolatzaileekin harremanetan jartzeko telefono zenbakiak honakoak dira: 686 427 565 943 903 402 dira. Izena emateko azken eguna irailaren 20a izango da.

Poltsak

Urnietako Udala materia organikoa biltzeko erabiltzen diren poltsak jasotzeko ordutegi zabalagoa eskaintzen hasi da. Zehazki, astelehenetik ostiralera eta 08:00etatik 20:00tara. Eskuragarri daude Udalak Lekaio kultur etxeko sarreran jarri duen makinan. Poltsak herritar bakoitzak duen txartelarekin eskuratu daitezke.

**HERNANIKO
 UDAL EUSKALTEGIA**

**19/20
 ikasturtea**

Matrikula irekita irailaren 20ra arte

Denbora gutxi daukazu euskaltegiara joateko?
 Lasai, **astean 2 eguneko** modulua erabadaukagu!
 Bestelakoak ere bai: **4 egun** eta **autoikaskuntza**.

Diru-laguntza handiak dituzu
 euskara ikasteko. Galdetu zure udalean.

**Egin
 gurekin bat!**



**HERNANIKO
 Udal Euskaltegia**
 Karobieta auzoa, 63
 (anbulatorio zaharra)
 HERNANI
 Tel.: 943 33 18 96
 euskaltegi@hernani.eus

ZORION AGURRAK



ANDOAIN Lidia Campos
Laister gure etxeko sorgintxo maiteak 5 urte beteko ditu. Muxu potolo-potolo bat famili guztiaren partetik.



ANDOAIN Maddi Uranga Elvira
Irailaren 29an gure printzesak 7 urte beteko ditu, eta primeran ospatuko dugu. Zorionak politta!



ANDOAIN Agustin eta Mari Glori
Irailaren 7an urrezko ezteiak ospatu zituzten. Egun aparta pasa genuen! Zorionak eta aurrerantzean ere jarraitu orain arte bezain zoriontsu. Muxuak.



ANDOAIN Juan Manuel eta Maddi
Zorionak bikote! Hilaren 8an aitona 79 urte bete zituen. 15ean etxeko Printzesa Maddik 9 beteko ditu. Jarraitu aitona indartsu eta Maddi hain maitakor. Etxekoak.

ODOL EMAILEAK

URNIETA

Irailak 13, ostirala
18:30-20:30. Anbulategi Zaharrear (Denda Berri jubilatuen egoitza).



GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 14 eta igandea 15
DIAZ: Kale Nagusia, 19.
943 59 20 57 Andoain.

URNIETA

Larunbata 14 eta igandea 15
AGUADO: Kale Nagusia, 21.
943 550 327. Astigarraga.
GAUEZ: ALDABE. Hernani.

"47ak Herrian" manifestazioa

Etxerat egitasmoaren inguruan lanean zegoen taldea auzi bidean jarri dituzte, eta haien aurkako zigor eskaerak oso handiak dira. Haien aldeko elkartasunezko manifestazioa antolatu dute Bilbon, larunbat honetan arratsaldeko 17:30ean hasita. Andoingo eta Zubizarreta eta Urnietako Esnal eta Kudu auziperatuen artean aurkitzen dira.



AIURRI

Super H festa Urnietan

Edizio berria prest du Super H elkarteak, Sanmielen aurretik ospatuko dena. Irailaren 21erako hitzordu bikoitza iragarri dituzte. 11:30ean marrazki lehiaketa, eta 16:30ean hasita mendi lasterketa txikia. Bi hitzordu nagusi horiez gain, apar festa, jolasak eta pailazoan emanaldia. Ekitaldi guztiak San Juan plazan izango dira.



AIURRI

Urnietako AEK Euskaltegia

Matrikula epea IRAILAREN 27ra arte

ESKAINZA ZABALA

- A1 eta A2 mailako taldeak astean 3 egun 2 orduz. Goiz, eguerdi eta arratsaldez.
- Azterketak prestatzeko taldeak: B1, B2, C1 eta C2. Astean 2 egun eta tutoretzak.
- Autoikaskuntza zerbitzua. Tutoretzak eta programazio pertsonalizatuak.
- Mintzalagun egitasmoa.

Diru-laguntzak: Udalarena langabetuak %100 arte eta langileek %85 arte

Zu
hemen
zaude,
AEK
ere bai

Euskara ikastaroak

Informazio orokorra:
Errekalde 1, tarteko oina.
662 338 747 · urnieta@aek.eus



Romero eta Lainez. AIURRI

Jabekuntza eskolaren eskaintza berria

Udazkenean hasi, eta ikasturte osoan zehar, eskaintza zabala martxan jarriko dute

Xabier Lasa ANDOAIN

“Emakumeen parte-hartze soziala eta politikoa sustatzea da eskolaren helburua”, gogora ekarri zuen Lainez alkateak. “Horretarako, espazio bat sortu nahi da emakumeek besteen esperientziak partekatzeko, eta batez ere, emakumeen arteko sareak sortu, ezagutu, lagundu, topatu eta disfrutatzeko. Horretarako programazioa anitza prestatu da. Aurreko urteetan martxan jarritako ikastaro batzuk errepikatu egingo dira, baina berrikuntzak ere badatoz”. Andoaingo emakume guztiei ikastarotuan parte hartzeko gonbitea luzatu zieten. Honako ikastaroei osatzen dute eskaintza: batukada feminista, sendabelarrak, autoestimua lantzen, mindfulness, menopausia eta autoezagutza, mendi orientazioa, emasolas (emakumeen arteko elkarriketa feministak), ondorez berr-ikusten, autodefentsa feminista eta jatorri aniztako emakumeen elkargune kulturala. Doakoak dira ikastaro guztiak. Informazioa eskatu edota izena emateko, honako helbideak jarri dituzte: Andoain.eus webgunean, Udaleko Berdintasun sailan eta Ataria arreta bulegoan, telefonoz (943 300 830) edota emailaz (berdintasuna@andoain.eus).

AZKENA

Pou anaien hitzaldia eta filma Saroben

Eneko eta Iker Pou anaiek “Mallorca, Andeak eta Himalaia, mendi bertikaletan murgilduta” emanaldia eskainiko dute irailaren 23an, Sarobe antzokian. Euren kirol jardueran munduko onenen pare dabilzan kirolariak Urnietara iristear dira

Andoni Urbistondo URNIETA

Euskal Herriko mugak txiki geratu ziren aspaldi Pou anaientzat, Eneko eta Ikerrentzat. Txiki, euren aktibitateak egiteko, Euskal Herrian mendi txikiak daudelako, eta txiki euren oihartzun mediatikoak aspaldi gainditu zituztelako Euskal Herriko mugak. Munduan dauden eskalatzaile onenetakoak dira gasteiztarak, onenak ez badira, eta Urnietara bertaratuko dira euren emanaldia eskaintzera. Lanak izan dituzte euren agendan tokitxoak egiteko, eta Urnietatik Himalaia aldera joango dira, biharamunean, beste mendiren bateko horma harritsu edo izozturen batean murgiltzeko. Agian Urnietan bertan esango dute, zein mendi edo horma izango den euren erronka.

Pou anaien emanaldiak ikusteko aukera gutxi izaten da Euskal Herrian. Mendi elkarteen mendi asteetan, urtean behin edo bitan, asko jota. Eskalada eta alpinismoa gustuko izan, eta Urnieta edo inguruko herriren batean bizi denarentzat, beraz, pasatzen utzi ezin den aukera ona da. “Mallorca, Andeak eta Himalaia. Mendi bertikaletan murgilduta” emanaldia eskainiko dute gasteiztarrek.

Mallorca, egun urteko hilabete gehienak Mallorcan pasatzen dituztelako. Uharte hartan eskalatzen hasi, eta eskualde aberatsa zela jabetu ziren bi anaiak. Bikotea ere badute, eta Euskal Herrira udan bakarrik etortzen dira, Mallorca beroak eta turista oldeek hartzen dutenean. Andeak eta Himalaia, euren mendi ibilbidean gehien ibili diren mendikateak direlako. Ez alferrik, egin dituzten azken igoera berriak Andeetan egin dituzte, Peruko Cordillera Blan- can, hain zuzen ere.



Puntako kirolariekin egoteko aukera paregabea izango da Urnietan. FILMUT.COM

Pou anaiek hogeitau urte daramatzate eskaladan murgilduta, eta ireki edo igo dituzten bideak bezainbeste baloratzen dute gustatzen zaiena eginez bizi direla. Euren lorpenei esker babesleak lortzen dituzte, eta babesle horien laguntza, eta euren lorpenen inguruko emanaldiak ekoitzi eta erakutsiz lortzen dituzte sosak, aurrera egin eta beste espedizio batzuk sortzeko. Euskal Herrian bezala, Espainian eta nazioarteko mendi aste entzutetsuetan eskaini dituzte emanaldiak bi

SARRERA HARTZEKO AUKERA ZABALDUKO DUTE DATORREN ASTELEHENETIK AURRERA

anaiek. Emanaldia bukatuta, Pou anaiak bertaratutakoekin nahi beste galdera erantzuteko prest izanen dira.

Sarrerak lortzeko modua

Pou anaiak mendi eta eskalada zale asko erakartzen dutenez, antolatzaile den Zanpatuz mendi taldeak eta laguntzaile den eta Urnietako Udalak, sarreraren banaketa antolatzea erabaki dute. 180 lagunentzako tokia dauka Sarobek, eta kopuru horretara iristen bada ez da jende gehiagoren sarrerarik baimen-

POU ANAIEK HOGEI URTE DARAMATE ESKALADAN MUGILDUTA, MAILA BIKAINA ESKAINIZ

Everesteko trekkinga

Pou anaien emanaldia baino lehen Urnietako bi lagunek Nepalen, Everest inguruan egin duten trekkinga izango dute ikusgai Sarobera bertaratzen direnek. Ordu erdi eskaseko emanaldia prestatu dute Joseba Oiarzabal eta Andoni Urbistondok, eta bertan munduko tontor garaienaren inguruan egiten den trekkingaren irudi ikusgarriak erakutsiko ditu bikoteak. Maiatzean egin zuten trekkinga, bi aste eta erdiz, Luklan hasi eta bukatu. 160 kilometro dira, oinez, eta 5.540 metroko altuerara igozten da trekkinga. Bertatik Khumbu glaziarra, Everesteko oinarritzko kanpamendua eta Everest bera dotore ikusten dira.

5.000 metroko langa beste bitan gainditzen da trekkingean, eta horrek dakarren nekea eta komeria gertutik ezagutu ahal izango dituzte ikusleek. Oiarzabal Lobuche East mendira ere igo zen, 6.119 metrokoa, eta tontorreko irudiek aho bete hortz utziko dituzte bertaratutakoak. Emanaldiko bi egileek azalpenak emango dituzte, irudiak ikusten diren bitartean, eta bukaeran nahi beste galdera erantzuniko dituzte.

duko, segurtasun irizpideengatik. Aldez aurretik tokia gorde nahi duenak Saroben bertan sarrerak erreserbatzeko aukera izanen du hurrengo astean, astelehenetik ostiralera (ordutegia, 09:00-13:00 eta 16:00-18:00). Doakoa da sarrera, baina pertsona bakoitzak gehienez ere bi sarrera eskuratu ahal izango ditu. Eta sarrera eskuratzeko izena eman beharko du.

Sarrera sorta bat emanaldiko egunerako gordeko da, badaezpada, leihatilan bertan eskaintzeko.